

BETERRIKO ALDIZKARIA

# AIURRI

1996ko irailaren 13a. 42. zenbakia. Dohain banatzen da.

DERRIGORREZKO  
BIGARREN  
HEZKUNTZAREN  
LEHEN IKASLEAK



Ama Kandida etorbidea z/g.  
DENAK 115 - ANDOAIN  
☎ 30 04 67

**Kidegas**, S.L.  
GASA ETA BEROGINTZA





BERRITUA

**JATETXEA  
TABERNA**



JOXE ARREGI PLAZA - ☎ 69 04 47

**ZIZURKIL**

**GURE BEREZITASUNAK:**

- KAXUELAK • ARRAIN ETA HARAGI ERREAK
- EGUNEKO MENUA • PLATER KONBINATUAK

**ZURE AUTOAREN ASEGURUA AUKERATU  
BAINO LEHEN 10 ARTE ZENBATU...**



*Prezioa galdetzeagatik  
errepide mapa bat  
oparitutako dizugu*



**MAPFRE**

*Xabin Mujika Tolaretxipi*

*Kaleberria, 11 — Dr. Huici, 4  
Telf.: 59 23 07 - ANDOAIN*

**%50 ARTEKO BEHERAPENAK  
KOTXEETAKO ASEGURUETAN**

**...ETA ASEGURU BIKAIN BATEZ GOZATU**

## 1. AURKIBIDEA.

### AIURRITARRAK

Jone Larrañaga: "Futbol sobredosia"

## 2. GALDEZKA.

Eta zureztat, zer moduzkoa izan da udaren egin duen eguraldia?

## 3. ADUNA

Herriko taberna hartzeko baldintzak.

## 4-5-6. ANDOAIN.

"Asfaltos naturales de Campezo" enpresa herrian. D. Pedro Erretorea "Herritik oso pozik noa". M<sup>a</sup> Angeles Iturrioz misiolaria. IZAR Emakumezkoen lagunarte errealista.

## 7. ASTEASU.

Herriko artisaunen erakusketa.

## 8-9. BILLABONA - AMASA.

Etxebizitzak eskuratzeko zerrenda. Kiroldegiaren lanak bukatzeko enpresa berria.

## 10. ZIZURKIL.

Muga arkitektonikoak kenduko dituzte.

## 11. ENPRESA.

Kidegas.

## 12-13. ERREPORTAIA.

Derrigorrezko bigarren hezkuntza.

## 14-15. ELKARRIZKETA.

Manu Etxezortu kazetaria.

## 16-17. KULTURA.

Andoaingo historiari buruzko ikerketa lanak.

## 18. ERRETRATU ZAHARRA.

## 19. ZER BERRI? / LEHIAKETA.

## 20. AGENDA

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiartzabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiertza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Irpinategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 11354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



## Futbol sobredosia



JONE LARRAÑAGA

**T**elebista Piztu eta Futbola Ikus-tea Gorroto Dutenen Elkarte (TPFIGDE). Izango balitz, horretantxe emango nuke izena gustura oraintxe. Elkarteak nik neuk sortzeko ere tentatua nago, ez pentsa. Joan den ekainean nahikoa nazkatu nintzen gurean diren sei telebista katetik hirutan futbola eskaintzen zutela ikusita. Eta aurtengoan handiagoa izango dela iragarri eta iragarri ari dira. Ez dakit jasateko gai izango naizen.

Katez aldatu edo telebista itzaltzea nahikoa dela esango didate askok. Jendeak eskatzen duena horixe dela beste zenbaitzuk. Bale, bai argudio errazak direla horiek, mamira jotzen ez dutenak. Zergaitik eskatzen du jendeak futbola? Ba besterik eskaintzen ez zaiolako kasik. Futbola eskaintzen den neurrian eskatzen du jendeak futbola; berdin txirindularitza, saskibaloia edo judoa. Hezkuntza kontua da.

Zorionerako, gaur egun ari dira ikastetxeetan gauzak aldatzen. Baina gaztetxo nintzenean (eta ez dira hainbeste urte ordutik) futboleko aritzea beste erremediorik ez zen kirola egin nahi izanez gero. Aukerarik ez zen apenas. Eta guztiek huraxe aukeratu zuten noski: lagun koadrila bildu eta baloiaren atzetik korrika ibiltzea. Koxkortutakoan etxekoa zaien kirol bakarra ikustea eskatzen dute logika osoz, eta telebistek horietan besterik ez dituzte eskaintzen, logikaz baita ere. baina audientziaren logikaz. Baina eskubiderik ez al dute bada, karatea, waterpolo edo igeriketa gustoko dutenek? Nahita ere, telebistaz kasik ezin ikus litezke kirol horiek lau urtetik behin egiten diren joko olimpikoetat kanpora. Futbola bai ordea, nahi adina, sobredosian.

Eta kirol horren kontra ez dut ezer, inguruan mugitzen duenaren kontra, ordea, guztia. Debekatua behar luke futbolariak erosteko (eta pertsonak dira) hainbeste milaka milioi pezeta ordaintzea, kartzelarekin egon behar luke zigortua taldeetako lehendakariak euren arazoak mutur-joka konpontzea, debekatua... Baina alde-erantzizkoa da errealitatea, guztiz alderantzizkoa: hori guztia promozionatzen ari dira etengabe, neurritz kanpo promozionatzen gainera.

Sobredosiak, sikiera, denak nazka-nazka egiteko balioko balu, gaitzerdi!



Aldizkari honek Eusko Jaureritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduaren laguntza jaso du.



# ETA ZURETZAT, ZER MODUZKOA IZAN DA UDARAN EGIN DUEN EGURALDIA?

*Udara kaskarra izan dugu aurtengoan. Hori da behintzat oporrak bukatu eta betiko zereginetara bueltatu garenon ahotan dabilen kontua. Gutxi dira eguzkiaren izpiekin beztu diren euskaldunak, hemen-*

*dik kanpora irten direnek bakarrik izan dute pribilegio hori. Eguraldi txarrak herritarren opor egunak zapuztu (edota hobetu) ote dituen jakin nahian atera gara kalera, eta hona hemen zer erantzun diguten.*



## **Ainhoa Alfonso, ikaslea. Andoain**

Txarra izan da baina horregatik ez ditut nire planak aldatu. Kanpaldian izan ondoren, Goizuetako kanpinan egon naiz. Eguraldi ona egin zuen bi leku horietan. Hala ere, hemen behintzat, ez du hondartzara joateko eguraldirik egin.




## **Pedro Jauregi, jubilatua. Zizurkil.**

Abuztuan eguraldi kaskarra egin du, baina udaran zehar egin duen eguraldia ez da txarra izan, baseritarrentzat behinik behin. Gu gainera, kaletarrok, beti konforme gaude egiten duen eguraldiarekin; eguraldi txarra egiten duenean etxean gelditzen gara, eta ona egitean duenean berriz, paseatzera irteten gara.



## **Ana Maria Salés, langilea. Asteasu.**

Nj Portugalen izan naiz abuztuan eta bertan oso eguraldi ona egin du. Hala ere, hemen gelditu direnek oso eguraldi txarra egin duela esan didate; euri asko egin omen du.



## **Sergio Gonzalez, langilea. Andoain.**

Lanean aritu naiz eta gutxitan irten naiz kalera, gainera, eguraldi txarra egin du. Hala ere, kanpinera joan naiz egun batzuk paseatzera. Bestalde, ez diot hainbesteko garrantzirik eman eguraldiari. Aurreko urteetan eguraldi hobea egin du, eta ea hemendik aurrera eguraldi hobea egin duen!



## **Agripina Sánchez, etxekoandrea. Billabona.**

Herrian gelditu naiz aurtengo udaran, eta etxean sartuta pasa dut ia denbora guztia. Izan ere, ez gara hondartzara edota paseatzera joan egin duen eguraldi txarra dela eta. Bost egun bakarrik egin ditu onak abuztuan.



## **Fernando Berzosa, tabernaria. Aduna.**

Uztailen nahiko eguraldi ona egin zuen, baina abuztuan oso txarra egin du. Herriko jaietan ordea, eguraldi ona egin du, baina orduan lanean aritu naiz. Hala ere, aurten eguraldiaz gozatzeko aukera gutxi izan dut.

*Ageltseritza*  
**USABIAGA**

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa  
Tel. 69 35 60 - 69 34 35  
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

ILEAPAINDEGIA  
**GARBINE**

Bulandegi kalea 13 - 3ºD  
Tel. 69 05 99 ZIZURKIL

**SOTO**  
elektrizitatea  
• ELEKTROGAILUAK  
• MATERIAL ELEKTRIKOA

Santiago kalea z.g BILLABONA  
☎ 69 11 73



# HERRIKO TABERNA HARTZEKO BALDINTZAK ALDATU DITUZTE

**Interesatuaren proposamenak jasotzen hasiko dira berehala**

*Adunako Udalak herriko taberna eta jatetxea ustiatzeko deialdia irekia egin zuen uztailan. Bi hilabete pasa dira eta inork ez du taberna hartzeko proposamenik aurkeztu. Ondorioz, herriko taberna nahiz jatetxea hartzeko baldintza berriak ezarriko ditu Udalak. Maizter berriei Udalak jarriko dizkie, besteak beste, tabernarako behar dituzten zenbait baliabide.*

**E**guno herriko tabernaren maizterek taberna utzi egin nahi dute. Hori dela eta, Udalak taberna jabe berri batek hartzeko deialdi irekia egin zuen Udalak joan den uztailan. Inork ez zuen taberna hartzeko proposamenik aurkeztu, tabernako errenta ordaintzea nola bertan lan egiteko behar diren baliabideak erostea garestiegia bide zelako. Hori da behintzat, alkatetaren esanetan, taberna hartzeko in-

teresik agertu zuten batzuk Udalarari adierazitakoa. Hori dela eta, Udalak tabernako materiala erosiko du, eta tabernak funtzionatzeko behar dituen hainbat baliabide ere berak ordainduko ditu. Baina horren ordainez, hilero Udalarari ordaindu behar zaion errentaren prezioa zertxobait igo egingo da, eta gainera, taberna hartuko duenak zenbait ardurara bete beharko ditu: frontoieko aldagiletako garbiketa egin beharko

du, eta frontoian argia jartzeko behar diren fitxak ere berak edukiko ditu.

**Noizko tabernari berriak?**

Taberna hartzeko baldintza berriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertuko dira, eta hil honetan interesatuaren proposamenak jasotzen hasiko dira udaletxean. Behin proposamen guztiak jaso ondoren, guztiak aztertu eta urrirako maizter berria aukeratuko dute. Azaroaren hasierarako tabernari berria arituko da tabernan lanean. Bien bitartean, eta tabernaren zerbitzua eskaintzen jarraitzeko, egungo tabernaria arituko da lanean.



*Urrirako maizter berria aukeratuko dute*

## GAZTE FESTAK

### EGITARAUA

**Irailak 13, ostirala:**

23.30: EGAN taldearekin dantzaldia.

04.00: Txokolatada.

**Irailak 14, larunbata:**

16.00: Altxorraren bila jokoa.

18.00: Txerri harrapaketa.

20.30: Gazte afaria.

23.00: Bertso jaialdia

- Sarasua
- Telleria
- Mañukorta
- Euskitze
- Mendizabal

Gai jartzailea: **Karlos Aizpurua.**

**Ondoren:** Gaupasa **AKELARRE** taldearekin.

*Mimos*

HAUR ETA GAZTEENTZAKO MODA  
JAI OBERRIARENTZAKO  
BEHAR DEN GUZTIA

BANATZAILEAK:

- BEBE CONFORT
- JANE • ARRUE
- INGLESINA

Kale Nagusia, 29 - BILLABONA



**XIXORI**

**BELARDENDA**

DIETETIKA ZENTRUA  
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

Udalarekin hitzartutako akordioaren arabera, **Asfaltos Naturales de Campezo enpresak bere egoitza Buruntza mendi magalean ezarriko du. Horrezaz gain, enpresa bera izango da Andoaingo kale eta errepi-detako asfaltatze lanak egingo dituena.**

## "ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO" ENPRESA HERRIAN

**Urtero 3.000 metro karratu dohain asfaltatuko dituzte**

Iazko urtean Asfaltos Naturales de Campezo enpresak udalarekin izandako harreman bartzuren ondoren asfaltatze lanak egiteko akordioa sinatu zuten.


Enpresak, Andoaingo herriaren kokapen geografiko egokiarengatik, beren enpresa Buruntzako mankomunitatearenak diren lurretan eraikitzeko eskaera luzatu

zuen. Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta enpresak, ikerketa lanak egin dituzte, enpresa eraikitzeko baimena onartu aurretik.

Enpresa Andoainen jartzearen ordainez, enpresa jarriko den lur saila hasieran Buruntzako mankomunitatearena izango den arren, hogeita host urte pasa ondoren, edota enpresa itxiko balitz, Udalaren esku geratuko da. Horrez gain, urtero 3.000 metro karratu asfaltatuko dituzte Andoainen.

### Enpresa eraikitzen

Enpresaren eraikuntza lanak hasi dira eta Udala herriz, konponitzeko behar gehien duten kaleen eta errepedeen zerrenda prestatzen ari da. Maxen Zinkunegi zinegotziak aurreratu digunez, datorren urtean hasiko dira asfaltatze lanak.



Enpresa eraikitzen hasi dira



**TXERRIKIEN  
BANATZAILE  
ETA  
EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA  
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923  
ANDOAIN

# MIRARI

## ILEAPAINDEGIA

ELIZKONDO PLAZA, 2  
☎ 592162

# ANDOAIN

**Gipuzkoako Foru Aldundiak Leitzaran bailararen ezau-garri geografiko, landaretza eta animaliei buruzko orri-txo bat argitaratu du. Leitzaran bailara iaz bihurtu zen Babesturiko Biotopoa.**

Leitzaran bailararen paisaia ederraren nola bertako espezie berezien, landaretzaren eta arrain mota ugariaren berri emateaz gain, Plazaolako trenaren inguruko aipamen berezia egiten du. Bertan praktikatu daitezkeen kirolak, ekin-tzak eta ingurugiroa babesteko arau-diak ere azaltzen dira liburuxkan: sua piztea eta egurra jolaserako moztea, edozein motatako zabor edo hondakinak bertan uztea edota lurperatzea, eta ibaian tresnak edo arropak garbitzea debekatuta daude. Baimendu-

## LEITZARANI BURUZKO LIBURUXKA

**Ekintzak, zerbitzuak eta araudiaren berri ematen du**

rik dago ordea, mendiko bizikletan ibiltzea eta senderismoa praktikatzea.

Liburuxka honen bitartez, Otita eta Olazar parkeen erabilera arrazionala eta egokia bultzatu nahi dute. Horrekin batera, egun parke horiek jasaten dituzten erasoak eta kalteak murriztu nahi dituzte.


**Errenderiako semea. Apaiz ikasketak Donostian, Mutrikun eta Gasteizen egin zituen. Astesuko, Pasai San Pedroko eta Andoaingo apaiz izan da. Hamazazpi urte igaro ditu Andoainen.**

**A**ndoainen urte askotan bizi ondoren, herritarrak ondo ezagutzeko aukera izan du. Era guztietako jendea ezagutu du: "Pasai San Pedroko auzoan, gallego artean egon nintzen urte haietan, esaera bat ikasi nuen: Gallegoak zazpi klasetakoak direla, eta euskaldunen artean antzeko asko aurkitu ditut". Andoainen hamazazpi urte hauetan antzeman duenaz galdeztzean, gazteen langabezi altua, politika aldaketa, alderdien zatiketa eta horren ondorioz sorturiko haserreak, eta HBren sortzea eta indartzea aipatu digu. "Horrezaz gainera, inguruko herriekin gonbaratuz Andoain ez da batere handitu; geroz eta haur gutxiago jaiotzen da. Bestetik, euskararen indartzea ere ezagutu dut urte hauetan zehar".

**DON PEDRO ERRETOREA:  
"HERRITIK OSO POZIK NOA".  
Berak eskatu du lekuz aldatzea**

San Martin Kristau elkarte oso maitea duela azaldu duen arren, berak eskatu du lekuz aldatzea. Laguntza handia izan duela azpimarratu digu, "elizaren konponketa lanetan lan handiak egin dira". Eta egitekoak utzi dituen arren, bukatuko diren itzaropenarekin doa Pasai Donibane-ko auzo txiki batetara. "Aldatzeko ordua etorri da; gazteago bat behar da, beste ideia eta asmo batzuk dituen apaiz baten beharra dago, bestela, zahartuta geratuko litzateke elkar-tea. Baina oso pozik noa, herrian lagun on asko uzten ditudalako".

Hemendik aurrera, Jose Ramon Iurrita izango dugu San Martingo erre-tore berria. Hori dela eta, eskakizun bat luzatzen die Don Pedrok herritarrei; "neri harrera ona egin zidatenek, datorrenari harrera berdina egitea eskatzen diet". Hitz horiekin agurtu da hainbeste urtetan San Martingo erre-torea izan den Don Pedro Zapirain.



**MARIA ANGELES ITURRIOZ:  
"BETIDANIK IZAN DUT  
MISIOETARAKO BOKAZIOA".  
Bolibiako behartsuei laguntzera joan da**

**Herrian Ama Kandida alaba kuttunaren izendapenaren inguruko lan eta ospakizunetan parte-hartu ondoren, Bolibiara joan da.**

**M**aria Angeles Iturrioz Uranga moja, Andoaingo Berrozpe etxean sei urte egin ondoren Bolibiara joan zaigu. Ikasketak erlijiosoak Estatuko zenbait lekutan burutu ondoren, Euskal Herrian bizi izan da orain artean.

Irakaskuntzan jardun du beti lanean: Donostian, Tolosan, Azpeitian eta Andoainen, hain zuzen ere. Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxean irakastea polita izan dela azpimarratu du. Orain ordea, sustraiak eta familia utzi eta beste bide bate-tik bideratuko du bere bizitza. Lau-garren zin-botoari kasu eginez, "prest egon behar da edonora joa-teko. Beharrik handiena dagoen le-kuetara joateko disponibilitatea izan behar da". Bolibiara joan da misio-etara. Bertan irakaskuntzan ihardun-go du ere. Berrozpe etxean bizitu-tako egunak eta oroitzapenak biho-



tzean dituela, bost urtetik behin da-gokion oporraldietan bisita egitera etorriko dela agindu digu. Orain, bere bizitzako bigarren atala haste-ra doanean, zorte ona opa diogu-guk hemendik.

**H**asieran Errealeko bost jokalarien lagunartea egitea pentsatu zuten baina Errealeko jokalaria eta zuzendariekin hitz egin ondoren, Erreala bere osotasunean hartzen zuen lagunarte bat sortzea erabaki zuten. Hori erabaki eta berehala, Itxaso Fernandez eta Maider Gorostidi andoaindar gazteak lanari ekin zioten. «Oraindik paperak egiten ari gara, estatutoak eta gainerakoak. Horretarako Errealaren aldetik laguntza handia jasotzen ari gara, jokalaria nabiz Errealeko barreman publikoetarako arduradun den Andoni Iraolaren aldetik. Lokala ere lortu dugu, eta orain, txukunketetan gabiltza».

Peñaren inguruan hainbat esames entzun behar izan dituzten arren, orokorrean harrera ona izan dute. «Hasieran batzuk barre egin ziguten, beste batzuek kuriositatezko galderak egin zizkiguten, eta beste batzuk berriz, animatu». Kritikatu dituenik ere izan den arren, neska hauen animoak ez dira muriztu.

### Bartzelonarako bidaiia prestatzen

Gipuzkoako emakumezkoen lehen lagunarte errealistaren asmoa, Errealaren partiduak zuzenetik jarraitu eta animatzea da. Horretarako, bidaiak prestatuko dituzte. Egun, Bartzelonarako bidaiia prestatzen ari dira, Errealak hilaren 22an Nou Camp-en jokatuiko duen partidua ikusi ahal izateko.

# IZAR: GIPUZKOAKO EMAKUMEZKOEN LEHEN LAGUNARTE ERREALISTA

## Hogeitamar emakumeek osatzen dute lagunartea

*Bartzelonarako bidaiia batean gauzatu zen emakumezkoen lagunarte errealista sortzearen ideia. Errealitate bihurtu dira lagun batzuren arteko asmo eta ilusioak.*



IZAR peña Andoaingo egoitza aurrean

Horrezaz gain, lagunartean parte hartu nahi duten emakumezkoek deialdi bat luzatzen diete: "Lotsak alde batera utzi eta futbolaz gozatzeko eta errealaren partiduetan ondo pasatzeko aukera eskeintzen dizuegu. Herriko nabiz inguruko

berrietako lagunartea da hau, eta adin guztiak emakumeak bil-tzen gara". Beraz, IZAR Gipuzkoako emakumezkoen lehen lagunarte errealistari sartu nahi izanez gero, deitu 591480 telefonora eta Maider edo Itxasoren galdera egin.



CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

EGUZKITAKO  
BETAURREKOTAN  
AUKERA ZABALA

Kale nagusia 9 -20140 ANDOAIN  
☎ 59 18 17



**ONDARRETA**  
TABERNA

Plater konbinatuak  
Ogitartekoak  
Pintxoak

Arkume eta  
txerrikume erreak  
enkarguz

Ondarreta 9, behea ☎ 59 36 27 ANDOAIN

Oremendi  
Kirolak

AUKERA ZABALA  
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN





# HERRIKO ARTISAUEN LANEN ERAKUSKETA

**Ganadu feria egingo da egun berean**

*Herriko artisauen lanak erakusteko, hilaren 22rako erakusketa antolatu du Larramendi Kultur Bazkunak. Artisau ugari bilduko dira egun horretan, eta egin dituzten lanak erakustez gain, lan horiek nola egiten dituzten ere erakutsiko dute. Herriko plazan egingo dute erakusketa, eta goizetik iluntzerarte iraungo du.*



Hogei artisautik gora bilduko dira

Herriko artisau gehienak elkartuko dira erakusketa horretan, eta bi zati ezberdinetan banatuko dira guztiak: alde batetik, jakiak lantzen dituzten artisauak izango dira, eta bestetik, egurra, burdina eta antzekoak lantzen dituztenak. Talogileak adibidez, lana nola egiten duen erakutsiko digu, eta gainera, taloak jateko aukera edukiko digu. Altzarien errestauratzaileak, uztargileak, eta artisau gehiagok berriz, aurretik egin dituzten lanak jarriko dituzte ikusgai. Era berean, orain eskuartean duten lanen bat egiten ariko dira erakusketan zehar. Asteasura urreratzen direnek prozesu guztia nola egiten duten ikusteko aukera paregabea izango dute. Gainera, artisauarekin hitz egitea ere posible izango da.

Larramendi Kultur Bazkunak antolatu duen lehenengo erakusketa da, eta herriko artisauen lanak erakusteko nola artisauak ezagutarazteko xedearekin egingo da.

### Soinu txikiaren erakusketa

Egun berean soinu txikiak eduki duen garapena azaltzeko, erakusketa txiki bat egongo da ikusgai. Bertan, zenbait soinu txiki eta argazki izango dira, eta Juan Tapia soinu-jotzaileak horiek azalduko ditu.

## MENDI ASTEA IRAILAREN 23TIK 29RA

Irailaren hogeita hiru hasiko da aurtengo mendi astea, eta egun horretan, Jabier Hernandez-ek "Picos de Europa" izenburupean zenbait diapositiba eskainiko ditu. Hilaren 27an berriz, ostiralean, Ramon Agirreren "Oceania" izeneko diapositibak jarriko dituzte. Bi diapositiba emanaldiak Kultur Etxean izango dira, iluntzeko zortziretan. Gainera, aste guztian zehar beste hainbat hitzaldi eta ekitaldi antolatuko dituzte. Asteburuan berriz, akanpada bat egingo dute Ernio mendian.

## PATXINE JATETKEA



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXKO POSTREAK  
Errementari, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



**ALOTZ**  
IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06  
ANDOAIN



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**

- gipuzkoa donostia kutzaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

# ETXEBIZITZAK ESKURATU NAHI DITUZTENEN ZERRENDATA EGITEN ARI DA UDALA

**Urriaren 10ean bukatuko da izena emateko epea**

**Larrea auzoan egingo dituzten babes ofizialeko 55 etxebizitzetan interesatuta dauden herritarrek, urriaren hamarra baino lehenago eman behar dute izena udaletxean. Eskatzaileek baldintza jakin batzuk bete beharko dituzte Udalak osatuko duen zerrendan sartzeko. Geroa, zozketa bat egingo dute zerrendako guztien artean berrogeita hamabost lagun aukeratzeko. Baina zozketa horretan aukeratutakoak etxebizitzak egingo dituen Behiko Soro enpresarekin akordio batetara heldu arte ez dira etxebizitza horien jabe izango.**

Interesatuak udaletxean eman behar dute izena, eta hemezortzi urte edo gehiago eduki behar ditu eskatzaileak. Era berean, Billabonako bizilaguna izan behar du, eta 1996ko urtarrilaren lehenetik behintzat herriko erroldan agertu behar du. Gipuzkoako herrialdean beste etxe baten jabe ez dela egiaztatu behar du, eta eskatzen ari den etxebizitza

aurrerantzean bere ohiko bizilekua izango dela dioen idatzizko konpromezua aurkeztu beharko du. Gainera, 30.000 pezetako behin-behineko fidantza jarri behar du.

Eskatzaileak urtean 1.590.000 pezeta baino gehiago irabazi behar ditu 82,50 metro karratuko bederatzietan etxebizitzetako bat eskuratu nahi badu; 1.460.000 pezeta inguru berriz, 57,40-68,90 metro karratuko etxebizitza bat eskuratzeko; eta 899.320 pezeta inguru, 41,30 metro karratuko etxebizitza eskatu nahi duenak. Horrelako diru sarrerarik izan ezean, nahikoa izango da hori ziurtatzen duen banketxeko agiria aurkeztea. Hori guztia betetzeaz gain, eskaera orri bat aurkeztu beharko da udaletxean izena emateko orduan.

## **Zozketa geroago egingo da**

Behin izen guztiak bildu ondoren, alkatea, alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat eta idazkaria bilduko dira. Eskaera guztiak aztertu ondoren, zeintzuk onartuko dituzten erabakiko dute. Erabakia publikoa egin ondoren, hamabost eguneko epea zabalduko dute errekursoak egiteko. Behin epe hori igarota, Udaltzako onartuen eta baztertuen zerrenda ontzat emango du, eta egun berean, zozketa non eta noiz egingo duten erabakiko dute.

## IRRINTZI ELKARTEAREN URTEMUGA

**Irrintzi elkarteak XV. urteurrena bete-ko du hilaren hamalauan. Hori ospatzeko elkartearen arteko sukaldaritza txapelketa, azoka berezia eta bazkideen arteko afaria antolatu dute, besteak beste. Gainera, Aldudes herriko bizilagunak gonbidatu dituzte jaialdira.**

Irrintzi elkartearen urteurrena ospatzeko, bailarako elkartearen arteko sukaldaritza txapelketa antolatzen dute iaiz geroztik. Goizeko hamarretan hasiko da txapelketa Errebote plazan, eta bertaratzen diren herritarrek bailarako elkarteek prestatutako jakiak dastatzeko aukera izango dute. Hiru urtetan jarraian irabazten duen elkarteak berriz, Tomas Ugartemendiaren eskultura bat jasoko du sari moduan. Beraz, aurten ez du inork irabaziko saria, horrelako txapelketa antolatzen den bigarren urtea baita.

## **Azoka berezia**

Goizeko zortziretatik aurrera Euskal Herriko jaki ezberdinen azoka berezia izango da plazan. Euskal produktu ugariaren 22 postu egongo dira plazan, eta dultzaineroen musikak alaituko du giroa.

Eguna ondo bukatzeko, bazkideen arteko afaria egingo dute Irrintzi elkartearen, eta ondoren, dultzainarien kalejirarekin ziur da parranda izango dela goizalderarte.




# KIROLDEGIAREN 3. ETA AZKEN FASEKO LANAK EGITEKO ENPRESA BERRI BAT KONTRATATUKO DUTE

**K**iroldegiaren 3. faseko lanak egiteko Austral Ingeniería enpresa kontratatu zuten hasiera batean. Baina arazo batzuk zirela eta, enpresa horri kontratua eten egin zioten, eta ondorioz, hasierako hautaketan bigarren postuan gelditu zen Altuna y Uría enpresak hartu zuen lanak egiteko ardura. Altuna y Uría enpresak ordean, ez zuen lanak egiteko kontratua sinatu Udala eta enpresaren arteko ezadostasun batzuk zirela eta. Ondorioz, eta lanak asko atzeratzen ari direlako, kiroldegia eta piszinen 3. eta azken faseko lanak egiteko enpresa berri bat kontratatzeko lehiaketa publikoa zabalku du Billabonako Udalak. Enpresa batzuek proposamenak aurkeztu dituzte, eta orain, lanak egingo dituen aukeratzea baino ez da falta.

## *Kiroldegiko lanen erakusketa Gurea zinemaretoan*

Irailaren 16tik hila bukatu arte kiroldegia behin bukatuta izango duen itxura azaltzeko erakusketa jarriko dute Gurea zinema aretoan. Donostiako bi arkitekto egin dituzten bi maketa eta hainbat lamina nahiz diapositiba jarriko dira ikusgai. Erakusketaren helburua, kiroldegia barrutik nolakoa izango den, zein instalakuntza izango dituen, eta kiroldegiaren ingurunea nola geldituko den azaltzea izango da.



*Zazpi hilabete inguru atzeratu dira lanak*

## ENRIQUE ABRIL-EN OMENEZKO XXXIII. PILOTA PARTIDUAK

### Billabonako Errebote plazan jokatuko diren partiduak

#### **Irailak 15**

09.30: *Behar Zana I-Hasparren*  
11.30: *Behar Zana II-Cambo*

#### **Irailak 22**

09.30: *Behar Zana II-Ustaritz*  
Baiona I-Cambo

#### **Irailak 29**

11.00: *Baiona II-Hasparren*

#### **Urriak 6**

11.00: *Cambo-Ustaritz*

#### **Urriak 20**

11.30: *FINALA*

**VIDEO CLUB AMETS**



Bideo zintak alokatzen dira

CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba


Txermin kalea, 21 behea BILLABONA

**BENITO**

**HARATEGIA URDATEGIA**

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49  
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50

**B I L L A B O N A**



**Aseguruak ARGENTARIA**

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34

**Z I Z U R K I L**



Mohamed Anzaoui eta Mouad Yebari margolarien koadro ugari daude egunotan Kultur Etxean ikusgai. Marokko-ko paisaia, itsasoa, eta emakumea dira margoetan ageri diren gai batzuk. Gainera, koadro guztiak Zizurkilgo erakusketarako egin dituztela azaldu digute. Margoak salgai daude, eta merke gainera: hamar mila pezetatik hogeita bost mila pezeta bitarteko prezioa dute koadro guztiak.

Mohamed eta Mouad margolariak Asilah herrikoak dira. Marokko-n artea gehien lantzen den herrikoak. hain zuzen ere. "Trasilab" taldeko partaide dira margolariak, eta taldea lau lagunek osatzen duten arren, oraingo honetan biek bakarrik antolatu dute erakusketa. Mohamedek Marokko erdialdeko paisaiak margotzen ditu, eta horretarako, bertako kolore gorriak eta arreak erabiltzen ditu. Mouaden margoetan ordea, emakumea eta bere gorputza dira gehien azaltzen diren gaiak, eta horrek arazo ugari sortu dizkio. Izan ere, Islamismoak emakumearen

## MAROKKO-KO ARTISTEN PINTURA ERAKUSKETA

Irailaren 15erarte iraungo du erakusketak



Mohamed lehen ere izana da Zizurkilen

gorputza agertzea debekatu egiten du, eta ondorioz, zenbait erakusketetan ezin izan ditu koadro horiek erakutsi. Arrazoi horregatik bere koadroetan emakumearen gorputzaren zati bat edota bere arropa azaltzen da soilik: "Margoa ikusten

duenak emakumearen gorputza imajinatuko du, baina nik ez dut bori irudikatzen, bori imajinatze-  
ra lagundu besterik ez diot egiten". Hala ere, Zizurkilgo erakusketako koadro gehienek Marokko-ko paisaia eta arkitektura azaltzen dute.

## MUGA ARKITEKTONIKOAK KENDUKO DITUZTE

Bi herritarrek egingo dituzte lanak

Jaiak bukatu eta berehala hasiko dira herrian zehar dauden muga arkitektonikoak kentzeko lanak. Gorpil aulkietan ibiltzen diren ezinduentzat espaloiak egokituko dituzte, eta bulegoetako nola beste zenbait lekuetako sarrerak ere berrituko dituzte. Neurri horiekin ezinduek ibiltzeko eta eraikuntzetara sartzeko topatzen dituzten zailtasunak kendu nahi dituzte, eta era berean, herriko bi langabeturi hiru hilabeteko lanpostua eskainiko diete.

Muga arkitektonikoak kentzeko egitasmoa duela bi urte egin zuten, baina zenbait arazo zirela eta, orain arte ez da ezer burutu. Egitasmoak Zizurkilgoiko egoera bakarrik aztertzen du, baina hala ere, Zizurkil gorako egoera aztertu eta bertan dauden

muga arkitektonikoak ere kenduko dituzte.

Langileak berriz, Gipuzkoako Diputazioak lanpostuak sortzeko eman duen dirulaguntzaren bitartez kontratatuko dira, eta Udalak materiala bakarrik ordaindu beharko du.



Eraikuntzarako sarrerak egokituko dituzte



# Andoain KIDEGAS, GASA ETA BEROGINTZA INSTALAKUNTZEN PROFESIONALAK

**Kontsumo arbitrariari  
atxikituta dago enpresa**

*Bi urte beteko ditu aurten enpresa gazte honek, baina bertan lanean ari direnek urte gehiago daramatzate gasa eta berogintza instalakuntzak egiten. Gipuzkoa mailan egiten dute lan, eta egun eskuartean duten egitasmoa, beraiek egin dituzten instalakuntzen mantenimentuaz arduratzea da. Aurrera begira berriz, eta gauzak orain artean bezala badoaz behintzat, enpresa sendotzeko eta handitzeko asmoa dute.*

EG IV mailako enpresa da Kidegas, hau da, gasa etxebizitzetan jartzeaz gain, lantegietan ere jartzeko ahalmena duen enpresa bat da. Maila hori edukitzeko zenbait baliabide tekniko nola jakintza konkretu batzuk eduki behar dira. Hala ere, instalakuntza gehienak etxebizitzetan egiten dituztela esan digute Arantxa Arberas eta Juan Migel Santamaria Kidegas-eko ordezkariak. Gas naturala, propanoa edo hiri gasa jartzen dute, eta normalean, gas naturalaren hodi orokorra doan herrietan lan gehiago egin ohi dute. Hala ere, gas propanoa ere asko jartzen dute, gasaren biltegia jarri eta etxean instalkuntza guztiak egiteaz arduratzen direlarik. Aipatu beharrekoa da Repsol butanorekin propanoa jartzeko kontratu bat sinatu dutela. "Repsol-ek kontratatzen dituen enpresa guztiak EG IV mailakoak dira, kalitate maila jakin batekoak, alegia" esan digute Kidegas-ekoek.



Arantxa Arberas eta Jose Migel Santamaria

Kidegas-eko langile guztiak nahikoa gazteak dira, baina gasa eta berogintza instalakuntzak egiten esperientzia asko dute guztiak. Hala ere, enpresaren bi urteak gogorak izan direla esan digute, "merkatuan kompetentzia handia baitago".

### Zerbitzua euskaraz

Aurrekontuak, kontratuak eta antzeko gauza gehiago euskara hutsean egiten dizkiete bezero euskaldunei. Bestalde, publizitatea beti elebiduna egiten dute, eta langile guztiak euskaldunak dira. "Guretzat oso garrantzitsua da euskaraz funtzionatzen duen enpresa bat izatea, lan egiteko filosofia bat da". Horrezaz gain, kalitatea eskaini nahi dute, eta bezeroak gustura edukitzea da beren helburua. Horretarako, bezeroekin harreman zuzenak edukitzen dituzte. "Zerbitzua, kalitatea eta bezeroa egin dugim lanarekin gustura izatea dira gure helburuak".

**FRANCISCO  
MENDIKUTE  
HARATEGIA**

Kalxetiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

**KORO**

**ILEAPAINDEGIA**

Bazkardo 9, 1-A  
ANDOAIN ☎ 59 22 46

**Amuri  
Beltz**

Taberna

Kaleberria, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

# DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAK AURTEN HASIKO DU IKASTURTEA

**Aiztondo bailarako ikastetxeetan hamabi urterarte  
bakarrik irakatsiko dute**

*Astebete barru irekiko ditu Ernio Beheko ikastetxe berri batek bere atea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza erakutsiko dute bertan, eta oraingoz, lehenengo zikloa erakutsiko dute. Aiztondo bailarako ikastetxeetatik nola Billabonako Fleming eskolatik datozen haurrak jasoko ditu Arratzaingo ikastetxe horrek, hamabi urtetik gorakoak guztiak. Billabonako Jesusen Bihotza ikastolak ere hezkuntza maila bera eskainiko du aurrerantzean, eta Andoaingo ikastetxe guztietan ere DBHko lehenengo bi mailak jarriko dituzte martxan. Hamasei urterarte ikasi beharko duten lehenengo ikasleak beraz, laster hasiko dute ikasturtea.*

**I**raila ikasturte berri bat estrenatzen den hilabetea izan ohi da. Ondorioz, liburu berriak, irakasle berriak eta antzeko berrietasun gehiago izaten dute ikasle askok. Aurtengoan ordea, horiek guztiak baino berrikuntza handiagoa emango da: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen zikloa martxan jarriko da. DBHak hamabi urtetik hamasei urte bitarteko ikasleak bilduko ditu, eta beraz, egun hamabi eta hamahiru urte dituzten ikasleek hamasei urterarte ikasi beharko dute. Aurtengo ordea,

DBHko lehen zikloa bakarrik ezarriko dute, eta OHOk 6. eta 7. maila bukatu duten ikasleak igaroko dira ziklo horretara. Urte pare bat igaro arte ordea, ez dute DBH osoa martxan jarriko.

DBHak aldaketa ugari eragingo ditu, eta gehienak, herri txiki-tako ikastetxeetan emango dira. Esate baterako, Aiztondo bailarako herri txikietan Derrigorrezko Lehen Hezkuntza bakarrik erakutsiko dute. Adunako eta Zizurkilgoiko San Millan eskola orain arte bezala geldituko dira beraz, baina hamalau urterarteko ikasleak biltzen zituzten Asteasuko Pello Errota eta Zizurkilgo Pedro Mari Otaño ikastetxeek, hamabi urterarteko haurrei bakarrik irakatsiko diete hemendik aurrera. Ondoren, Ernio Beheko DBHko ikastetxera jo beharko dute ikasleek. Arratzaingo eskoletan kokatuko den ikastetxera, alegia, Bestalde, Jesusen

Bihotza ikastolan ere eskainiko dute DBH Ia. Azken finean, Aiztondo bailarako eta Billabonako haur guztiak Billabonan ikasiko dute hamabi urtetik hamasei urte bitartean. Haur horiek estrenatuko dute ere DBHko bigarren zikloa, eta behin hori amaituta, Andoainera edo Tolosara joan beharko dute ikasten jarraitu nahi badute. Bertan, batxilergoa eta lanbide heziketa ikasi ahal izango dute beste bi urtetan zehar.

*Ernio Beheko  
hamabitik hamasei  
urte bitarteko  
gaztetxoek  
Billabonan ikasiko  
dute*



*Egunero sei orduz arituko dira ikasten*



## Irakasteko modu berriak

DBHak ekarriko dituen berrikuntzak eta bere funtzionamendua nolakoa izango den jakin nahian, Ernio Beheko DBHko ikas-texera jo dugu. Bertako zuzendaritza batzordeak, lehenik eta behin, bailarako herrietako gurasoen nahia bete dela esan digute. Izan ere, bailaran DBIa ikasteko aukera dute bertako haurrek. *"Azken unerarte ez dugu jakin haurrek Billabonan ikasteko aukera edukiko zutenik"*, gaineratu digute.

Klaseak emateko moduak eta ikasgaiak ere aldatuko dira. Esate baterako, ordutegia zeharo ezberdina izango dute: goizeko 08.30etatik eguerdiko 12.30etara, eta arratsaldeko 14.00tatik 16.00tara iraungo dute DBIko klaseek. Teknologia izeneko ikasgai berria erakutsiko dute DBHan, eta asteen bi orduz, ikasle bakoitzak gogoko duen ikasgai ikasiko du. Ingelesaz gain, atzerriko beste hizkuntza bat ikasteko aukera eman behar dute, eta ondorioz, frantsesa ikasteko aukera izango dute ikasleek. Ehun ikasle inguru hasiko dira Arratzainen aurtengo ikasurtean; lehenengo mailan bi gela osatu dira, eta bigarren mai-

lan ere, beste bi. Zortzi irakasle emango dituzte klaseak, eta horietatik sei, Billabonan, Asteasun eta Zizurkilen aritu dira aurrez irakasle lanetan. Soinketa eta teknologiako irakasleek berriz, Alegiko ikastetxean ere klaseak emango dituzte. Zailtasunak dituztenei laguntzeko irakasle berezi bat edukiko dute, eta irakasle guztiak erakutsi behar duten gaiaren inguruan espezializatuak izango dira. *"Irakasleok nabikoa ongi prestatu gaudu DBIko klaseak emateko, lehen ziklokoak behinik behin"* esan digute. DBHa ezartzeak sortu dituen arazoak, infraestruturaz gabezia eta diru falta direla esan digute. Hala ere, DBHa ikastera etorriko diren ikasleentzat egin beharreko lanak egin dituzte; jangela handitu, gelak egokitu,...

## Hamasei urterarte ikasi beharra

DBHak ekarriko dituen onura eta abantailez galdetu diegu, eta haurrek hamasei urterarte ikastea egokiago dela erantzun digute. *"etorkizunean zer egin nahi duten aukeratu behar dutenean ideia sendoagoak izango dituzte"*. Horrezaz gain, herri txiki-txiki haurrak ez dira ikastera oso urrutira joango, eta gainera,

arratsaldeko lau etarako etxean izango dira. *"Herri txiki-txiki haurrak hamasei urte bitarteko gaztetxoek, beste herrietako lagunekin erlazionatzeko aukera izango dute"*, gaineratu dute. Bestalde, irakasleen esanetan, hamabitik hamasei urte bitarteko ikasleak bateratzea, hiru urteko haurrak eta hamalau urteko gaztetxoak batera edukitzea baino egokiagoa da.

## "Hamasei urterarte ikasten aritzea positiboa da"

### Gurasoak kezkatu

Asteasuko guraso elkartereko kideei, pena handia ematen die Pello Errota ikastetxea hustutzeak eta hamabi urtetik gorako haurrak ikastera kanpora joateak. Hogeita bi ikasle inguru joango dira aurtengo DBHra, eta autobusean jaitsi eta igoko dira Arrantzaingo ikastetxetik herrira. Bazkaldu ikastetxean egingo dute, eta haurrak Billabonakoak ez direnez, jangelaren kostuaren erdia eta garraioaren kostu osoa hezkuntza delegazioak ordainduko du. *"Guraso batzuek Tolosara bidali dituzte haurrak, haurra ikastetxe batetik bestera mugitzen ez ibiltzeagatik"*, esan digute gurasoek. DBHaz eta eskola mapa berriaz bileretan informatu dituztela esan digute, baina erabaki horietan beraiek ez dutela parte hartu gaineratu dute. *"Guk haurrak berrian geratzea nahi dugun arren, ez daude ikasle nabikoak DBHa ezartzeko; ezin izan dugu ezer egin"*. Aldaketa berri horiek gurasoak kezkatu egingo ditu, baina hilabeteak joan ahala berritasun horietara guztietara ohituko direlakoan daude. Hala ere, hamabi urteko haurrak ikastera kanpora joateko gaztetxoak direla diote, eta Asteasuko eskolaren etorkizunaz ere beldur dira. *"haur gutxiago baitaude urtetik urtera"*.



Ikasgai berriak emango dituzte



# MANU ETXEZORTU, GOIZEAN BEHIN IRRATI SAIOKO AURKEZLEA

**"Programa berean jarraituko dut,  
bertan gustura nago eta"**

*Denek ezagutzen ez duten arren, bere ahotsa ezaguna da oso gure artean. Goizero milaka euskal entzuleek, Jaime Otamendi eta Arantxa Iturberekin batera lan egiten duen Manu Etxezorturen Goizean Behin irrati saioa izaten dute entzungai. Programan egin behar dituen lanak eta Manu bera zertxobait gehiago ezagutzeko, berarekin izan gara.*

**Aiurri:** Egun irratian egiten duzu lan; noiz hasi zinen?

**Manu Etxezortu:** Kazetaritzako bigarren kurtsoan nengoenean ordezkapenak egiteko hartu ninduten. Hiru urtetan ordezkapenak egin ondoren, 1991an egun osorako lanean hasi nintzen. Harrez gero Goizean Behin goizeko magazinean aritu naiz lanean. Euskal telebistan bekadun moduan aritu naiz eta Aiurri ere kolaboratu izan dut, baina gehienbat, Euskadi Irratian aritu naiz lanean azken urteotan.

**Ai:** Goizean Behin irratsaioan zein da zure lana?

**M.E.:** Magazinearen iraupena bost ordukoa da, goizeko zazpitatik eguerdiko hamabiak arte. Zazpitatik bederatziak laurden gutxiagora albisteak izaten dira. Ondoren, bederatzi erdiak arte, eguneroko tertulian, eguneko albisteak aztertzen dituzte politikoeak eta kazetariak. Behin hori bukatuta, magazina hasiko da eta denetatik eskainiko dugu: elkarrizketak, musika, erreportaiak ...

Nik erreportari lanak egiten ditut, eta beraz, denetatik egiten dut.

**Ai:** Bestelako programarik egiteko gogorik ba al duzu?

**M.E.:** Bai, egingo nukeen. Programa mota asko dago, beste era bateko magazinak, musika saioak ... Udarari bestelako programaren bat edo beste egin dut, eta gehiago ere egingo nituzke. Orain ordea, Goizean Behin saioan jarraitzen dut; gustura nago bertan.

**"Magazina, denek  
gusturako gauzak  
dauden zaku handi bat  
da"**

**Ai:** Zergatik ditu jendeak bain gustuko magazinak?

**M.E.:** Magazin batean denetarik dago; elkarrizketak, musika, erreportaiak, kontsultorioak... Magazina batean denetatik dagoenez, entzule mota guztiak hartzen dira kontutan. Denek gustuko gauzak dauden zaku handi baten antzekoa da eta beraz, entzule multzo handiagoa eta anitzagoa dauka.

**Ai: Kazetaritza ikasketak beharrezkoak al dira irratian lan egiteko?**

**M.E.:** Kazetaritza ofizio bat da, eta beraz, hori ikasiz gero egin dezakezu lan hori. Hala ere, kazetaritza ikasi ez duen jendea sartu izan da irratian, baita beste zenbait komunikabideetan ere. Beste ikasketa batzuk egiten badituzu ere ofizio hori egin dezakezu. Nire ikuspuntutik ordea, kazetaritza ikastea mesedetarako da. Kazetaritzak beste ikasketak ematen ez duen ikuspegi bat ematen dizu; euskal zein atzerriko kazetari ezagunenek kazetaritza ikasia dute.

gustura. Nik irratia eta telebista piska bat ezagutzen ditut, irratia beti gustatu izan zait; entzuleengandik burbil egoteko aukera ematen dizu. Beste komunikabideetan ez bezala, entzuleekin harreman zuzena lortzen du irratia. Ni irratian oso gustura sentitzen naiz.

**Ai: Kazetariak gaizki ikusiak dira zenbait esparrutan. Zer dela eta?**

**M.E.:** Kazetari batzuren lana kritikagarria dela egia da. Pertsona batzuen irudi txarra guztioi zabaldu digute, baina hori ofizio guztietan gertatzen da. Egia da

ere kazetari batzuk irudi txar hori merezi dutela, baina denak ez gara borrelakoak. Ezin da orokortu eta kazetari guztiak manipulatzaile batzuk garela esan.

**Ai: Etorkizunari begira zein asmo dituzu?**

**M.E.:** Iratian segitzeko asmoa dut. Bibarko egunari begira berriz, gustoko nukeen etorkizuneko irratia prestatzen bastea. Komunikabide guztiak aldatzen doaz, puntako teknologiaren indarrean irratsaio berriak asmatu behar dira. Jendea ez aspertzeko noizean behin, berrikuntzak txertatu behar dira.

## “Entzuleekin harreman zuzena lortzen du irratia”

**Ai: Beste komunikabideekin gonbaratuz, nola ikusten duzu irratia?**

**M.E.:** Komunikabide bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Egunkarietako eguneroko martxa ez dut ezagutzen, eta beraz, ezin dut horretaz asko hitz egin. Norberak ikusi behar du non sentitzen den



Oporraldien ostean, berriro lanean




AHOLKULARITZA  
ARTEZKARITZA

# IRAOLA

ENPRESEN AHOLKULARITZA:  
FISKALA, DIRUKONTUENA,  
JURIDIKOA, LABORALA,  
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37  
Tif. 69 27 63  
Fax 69 27 74  
20150 BILLABONA



# BORDA JATETxea

A N D O A I N



# MENDI AUTOESKOLA

Agustin Leitza 11 - ☎ 300604  
20140 ANDOAIN

# ALFARO JATETxea

EGUNEROKO MENUA

Etxeberrietta auzunea  
☎ 59 40 27 ANDOAIN

# ANDOAINGO HISTORIARI BURUZKO IKERKETA LANAK

**Leyçaur dirulaguntzari esker egindako lanak dira**

*Leyçaur 4 liburua publikatuko dute gutxian. 1990an hasi eta bi urtetik behin eskeintzen diren beka batzuren ondorioz, Andoaingo historia landu eta ezagutzeko aukera dugu irakurleok. Zazpi ikerketa lanek osatuko dute Leyçaur 4 liburua, eta udazkenerako kalean izango da. Liburuan bildu dituzten ikerketa lan horien egileak zeintzuk diren eta zer landu duten jakingo dugu jarraian.*

## 1.- ANDOAINGO HIRIAREN EZAUGARRI POLITIKOEN ANALISIA 1.600. URTEA.



### Susana Truchuelo Garcia. Andoain.

XVII. mendeko Andoaingo hiriren eraketa politikoak eta horien barne eboluzioak aztertzen ditu lan honek.

*(Erdaraz burutu da ikerketa)*

## 2.- EMAKUMEAREN EGOERA AINTZIN ERREJIMENEAN ANDOAINEN.



### Oihane Oliveri Korta. Errenderia.

Andoainen Aintzin Errejimeanean emakumeek arlo ezberdinetan bizi zuten egoera aztertzen du lanak: emakumeek familiaren barruan nola ondasun ekonomikoak gestioan beterzen zuten papera aztertzen du. Era berean, ezkonizari nola munduari buruz zuten pentsakera gureganatuko digu lanak.

*(Euskaraz burutu da ikerketa)*

## 3.- ANDOAINGO BENEFIZIENTZIA ETA ONGIZATE SOZIALAREN BILAKAERA HISTORIKOA. XVII. MENDEAREN BUKAERATIK XX. MENDEKO 30EKO HAMARKADA ARTE.



*Aitor Garmendia*

### Gorka Alijostes Olasagasti. Pasai San Pedro. Aitor Garmendia Ayestaran. Lazkao.

Andoain bezalako ingurune ezheritar batean, benefizientzia eta giza asistentziaren bilakaera aztertzen du lanak. Behartsuenganako laguntzetan Eliza eta ongizaleen eskuzabaltasuna zein baldintzetan ematen zen,

Estatuaren partehartze handiagoa, eta XIX. bukaerako Ongizate sozialaren lehen pausuak dira ikerketa lan honen oinarriak.

*(Euskaraz burututako da ikerketa)*

## 4.- HERRILANAK ANDOAINGO ERAIKUNTZAN (1850-1900. URTE BITARTEAN).



*Koro Muro*

### Koro Muro Arriet. Hernani. Marco Segurola Jimenez. Tolosa.

Azpiegituraren hobekuntza garrantzitsuak eta aldaketa sozio-ekonomiko handiak izan ziren garaia aztertzen du lanak. Herriko zein herrialdeko lan publikoek Andoaingo herrian izan duten eragina, alegia,

*(Euskaraz burutu da ikerketa)*

## 5.- ALBERTO AGIRRE MUSIKARIA ETA ANDOAIN.



### Leire Ibañez Mendikute. Andoain.

Alberto Agirre zenaren izaera eta bere musikogintzaren garapena, nola Andoain herriarekiko harremanak aztertzen ditu. Era berean, bere musika aztertzen du ikerketa lan honek.

*(Euskaraz burutu da ikerketa)*



**6.- LANGILEAK ANDOAINEN 30EKO HAMARKADAN, BIZTANLERIAREN EGITURA, BIZI-MAILA ETA GATAZKAKORTASUN SOZIALA: 1931-1936.**

**Mikel Zabaleta Garcia.  
Errenderia.**



Langileak eta beren munduaren ikerketa lan bat dugu hau. Gipuzkoako eta Euskal Herriko datuen gonbarapena eginez, Andoaingo langileen eraketa, bizi-mailaren eboluzioa, errebindikazio... aztertzen ditu.

**7.- ANDOAIN: POSTFRANKISMOA ETA TRANSIZIOA; 1977 ETA 1979KO HAUTESKUNDE LEGISLATIBOAK**

**Mikel Rodriguez.  
Peio Urrutia Ochoa. Irun.**

1977 eta 1979ko hauteskunde orokorretan, herriko zein auzo bakoitzeko hautesleriaren jokaera aztertzen du ikerketak.

## MARTA TRUCHUELO: «LABORDEK ATZERRIAREKIN HARREMAN ONAK IZAN ZITUEN»

### Dokumentazioaren zati handi bat aztertu du

**Laborde enpresak Andoaingo udalari emandako dokumentazioa aztertzeko beka bat zabaldu zen. Lau proposamen aurkeztu ondoren, Marta Truchuelo andoaindarrarena aukeratu zuten. Sei hilabetetan zehar egiten ari den lanari buruz jakiteko berarengana jo dugu.**

**Aiurri: Noiztik ari zara dokumentazio hori guztia aztertzen?**

**Marta Truchuelo:** Dokumentazioa aztertzeko epea berez, bederatzi hilabetetako da. Martxoan hasi eta azaroa bitartean, dokumentazio idatzia eta grafikoa klasifikatzea, ordenatzea, eta Laborderen historia egitea zen hasierako asmoa, baina uste baino denbora gehiago beharko dut dena amaitzeko. Laborderen historia abendu eta urtarril bitartean egin beharko dut; gainerakoa azarorako bukatuko dudala espero dut.

**Ai: Zer egingo da material horrekin guztiarekin?**

**M.T.:** Material idatzia eta grafikorekin erakusketa bat egingo da Laborderen 70. urteurrena ospatzeko. Laborderen historiarekin berriz, beste ikerketa lan batzuekin batera hurrengo Leyçaur 5. liburuan argitaratuko da, hemendik bi urtetara.

**Ai: Zein dokumentazio erabili duzu? Noizkoak dira?**

**M.T.:** Dokumentazio ugaria erabili dut; espedienteak, bezeroen gutunak, fakturak, ikasleen esaminak, koadernoak, aldizkariak, erregistro liburuak ...

Dokumentu zabarrenak 1926koak dira, enpresa ireki zen urtekoak. Berrienak berriz, 1978 urtekoak dira.

**Ai: Zer ondorioztatu duzu dokumentazio hori guztia ikertu ondoren?**

**M.T.:** 1926an ireki eta 1977 urtean Laborde anaiek enpresa utzi zuten urterarteko epean, enpresaren egoera

ezberdina izan da. 60eko hamarkadan altzairua egiten hasi zen, eta kalitate kaskarreko produktua egin zuten. Widia izenez ezagutzen den metal gogorra berriz, kalitate onekoa izan zen. Alemanek patentea eman zien eta atzerriko herriei barreman handia izan zuten: Afrika, Amerika, Venezuelata ...

Dokumentazio guztia aztertu bitartean, ezin da Laborde enpresaren inguruko azterketa sakonik egin.

**Ai: Lan astuna al da material hori guztia sailkatzea eta ordenatzea?**

**M.T.:** Hasieran nabikoa gogorra izan zen. Ezezagunak ziren bitz, termino eta planu horien guztien esanbidea ulertzea zaila egin zait. Lan asko zegoen eta ezer ez nuela aurreratzen zirudien Eguzi ordea, gauzak beste-lakoak dira: lana aurreratzen ari naiz.

**Ai: Dokumentazio guztia gorde al da?**

**M.T.:** Tamalez dokumentazio asko falta da. Espediente gehienak 70eko hamarkadakoak dira. Faltza diren dokumentuak galdu edota bota egingo zituzten. ■



Materialaren klasifikapena burutzen

## LARRAULGO IKASLEAK. 1975.



**Atzean ezkerretik eskuinera:** *Esteban Amonarriz, Jexus Mari Arizeta, Mila Treku, Ana Treku, Mari Carmen irakaslea, Mertxe Urbieta, Izaskun Agisalde, Mertxe Irazu eta Pilar Urkola.*

**Aurrean ezkerretik eskuinera:** *Gaspar Tolosa, Joxe Mari Mugika, Jokin Iraola, Jexus Mari Urkola, Arantxa Urkola, Pako Treku, Koldo Irazu, Xabier Tolosa, **Ixiar Tejeria**, Izaskun Tejeria, Ana Belen Urbieta, Rebeca Cbacon, Karlos Irazu eta Jexus Mari Irazu.*

Argazkia atera zuten urtearen inguruan desagertu zen Larraulgo eskola, beraz, Larraulen

bertan ikasi zuten azken ikasleak dira bertan ageri direnak. Haur guztiak gela berean eta irakasle bakarrarekin ikasten zuten, eta eskola desagertzearen arrazoia hori izan zela esan digute. Gurasoak ez zeuden adin ezberdineko haurrak batera eta irakasle bakarrarekin ikastearekin oso konforme, eta hurrengo urteetan, Asteasura edota Tolosara bidali zituzten haurrak ikastera. Egun autobus batean jaisten dituzte Larraulgo haurrak Asteasuko eskolara.

Argazkiko haurren izen-abizenak **Ixiar Tejeriak** eman dizkigu, eta eskolari buruzko informazioa herriz, **Joxepi Azkuek**.

**ITAMAR**

Nagusia 28 - ☎ 69 39 31 - BILLABONA

OPARIAK - BITXIAK - MODA

**SOLARIUM ZERBITZUA**

ZURE AZALA PREST UDARAKO

**Loitzo**

LANPARAK ALTZARIAK

KOLTXOIAK OPARIAK

Errota kalea, 3 - ☎ 69 21 35 BILLABONA

**Joxe Ramon**

TABERNA

**PINTXO EDERRAK !!**

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

## JUAN INAZIO ARTOLA SATXOTA sagardotegiko jabea Zizurkil



- Noiz ireki zenuen sagardotegia?

- 1978an tabernataz aspertu eta sagardotegia ireki nuen. Txikitatik kupelak eta bodega gustoko izan ditut, eta beraz, momentu egokia zen sagardotegia irekitzeko.

- Nondik datorkio Satxota izena?

- Aitonaren baserriaren izena jartzea bururatu zitzaidan.

- Urte guztian ala sagardo denboraldian bakarrik irekitzen duzu?

- Guk urte guztian irekitzen dugu baina sagardotegiak sagardo denboraldian bakarrik ireki beharoko liriteke, urtarriletik apirila arte.

- Nolakoa da egungo sagardo edalea?

- Gaztea. Sagardotegira afaltzera eta ondo pasatzera etortzen da. Galdu da sagardoa probatzera etorri eta etxera sagardo kaxak eramaten zituen bezeroa.

- Azken urtetan sagardotegi berri asko ireki dira. Kompetentzia handia al dago?

- Sagardotegiak baino gehiago merenderoak ireki dira. Sagardotegien elkartearen arautari kasu eginez, ehun mila litro sagardo baino gutxiago dutenak ez dira sagardotegiak. Nire ustez, sagardotegien arteko kompetentzia handiegirik ez dago.

- Zer egin behar da sagardo lehiaketetan parte hartu ahal izateko?

- Lehiaketak prestatzen dituzten sagardotegi ezberdinek parte hartzeaz arduratzen dira. Lehiaketa garrantzitsuenak, Donostian ospatu berri diren Euskal Jaietakoak eta Usurbilgo sagardo eguna dira. Herri askotan izaten da sagardo lehiaketa, baina ezin da denetara joan.

- Orain artean, nolako sagardo denboraldia darazue?

- Aurten oso denboraldi ona izan dut. Azken lehiaketetan aurreneko postuetan geratu naiz. Aurtengo sagarra ugaria eta ona izan da, eta ondorioz, sagardo ona egin da. Sagar eskasia dagoenean kanpotik ekartzen da sagarra, eta ez da bain erraza kalitatezko sagardoa egitea.

- Nola definituko zenuke zure sagardoa?

- Kalitatez tartekoa; ez ona eta ez txarra. Urtero kalitate bereko sagardoa egitearekin konformatzen naiz. Urteetan gorabeherak izatea baino hobea da mantentzea.

# AURRERA TABERNA

**Girorik ederrena gazteriarentzat!!**

## ZIZURKIL

## PERTSONAIA EZKUTUA



Aiurriren irakurleek asmatu beharreko pertsonaia berria duzue zirriborroaren atzean ezkutatuta.

Saria bikaina da oraingo honetan ere: **Andoaingo Bikoitz argazki dendak estudioan eginiko argazki erreportaia** eman digu oparizat. Irabazleak argazkiak estudioan egin ondoren, album batean jaso ahal izango ditu.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenak bidali itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15, behea, 20140 Andoain.**

- Argazkiak errebelatzen ditugu
  - Estudio argazkiak egin
  - Karnet argazkiak instantean
  - Ezkontza erreportaiak.
- Argazkiak, bideoak



KALE NAGUSIA, 19 behea

☎ 30 07 27  
ANDOAIN

**B  
I  
K  
O  
I  
T  
Z**

**MUSIKA****ANDOAIN**

**Irailak 13:** Xabier Lizaso Loizaren emanaldia. Goikoplazan 22.00tan.

**Kontzertuaren egitaraua:** A. Donosti, F. Schubert, F. List eta F. Chopin musikoaren obrak.

**Irailak 20:** Mikel Elizagaren kantaldia La Salle Antzokian 22.00tan. Mikel Elizaga kantari eta pianojolearekin batera. Karlos Salaberri aktore eta perkusiojoleak joko du.

**BILLABONA**

**Irailak 19:** *Ochote Ozenki* taldearen kantaldia. Gurea zinema aretoan, gaueko 21.00tan. Sarrera dohain.

**Irailak 26:** Bertso-kopla-musika taldearen "*Paperetik plaza-  
ra*" emanaldia. Gurea zinema aretoan, arratsaldeko 20.30etan. Sarrera: 500 pta.

**ERAKUSKETAK****BILLABONA**

**Irailak 16-29:** Javier Martinezen "*Euskalberriko jaiak*". Gurea zinema aretoko erakusgelan.

**ASTEASU**

**Irailak 22:** *Artisau erakusketak* plazan. Bertan artisauak lanean arituko dira eta beraien lanak ikusgai izango dituzte.

**Ordutegia:** 11.00 - 14.00tara eta 17.00-19.00tara.

Ganadu feria ere izango da egun guztian zehar.

**IBILALDIAK****ANDOAIN**

**Irailak 15:** EUSKALDUNA mendigoizale taldeak antolatuta. Bidasoa arroan zehar 6. ibilbidea: Ireber eta Basakabira.

**BILLABONA**

**Irailak 14-15:** AIZKARDI menditaldeak antolatuta. Europako Gailurretara irteera.

**IRTEERAK**

**Irailak 23:** Larraul, Aduna, Astasu eta Zizurkil goiko herritarrentzat antolatutako txangoa Bera, Lesaka eta Elizondora. Izena emateko deitu 693930 telefonora goizez.

**ANTZERKIA****BILLABONA**

**Irailak 17:** Hautrentzako Mimo antzerkia. Peter Robertsen "*Marra-  
txo*" antzezlan. Gurea zinema aretoan arratsaldeko 19.00tan. Sarrera: 300 pta.

**Irailak 20:** Agerre taldearen "*Zergatik Panpox*" antzezlan. Gurea zinema aretoan 22.30tan. Sarrera: 500 pta.

**Irailak 24:** Haur antzerkia. Fregoli taldearen "*Makilakixkiren txontxongiloak*" antzezlan. Gurea zinema aretoan arratsaldeko 19.00an. Sarrera: 300 pta.

**MERKATU TXIKIA****ADUNA**

Gazte-logela bateko altzariak salgai. Telf: 690823

**BESTE****ITZULPEN LEHIAKETA.**

**EIZIE.** Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkarteak "Literatura Unibertsala" bildumarako itzulpen-lehiaketa zabaldu du. Itzulgaieen zerrenda eta xehetasunak irailaren 2-tik aurrera emango dira elkar-terera deituta. Tlf.: 277111 (goizez).

**ASTEASUKO MENDI ATEA**

**Irailak 23an:** Jabier Fernandezek "*Europako gailurrak*" izeneko diapositiba emanaldia.

**Irailak 27an:** Ramon Agirreren "*Ozeania*" izeneko diapositiba emanaldia.

Kultur etxean arratsaldeko 20.00tan


**Irailak 28-29:** Akanpada Ernion.

**ERNIOKO ERROMERIA**

Iraileko igande guztietan (15.22.29).

**ZINEMA****BILLABONA****GURE ZINEMA  
IRAILEKO PELIKULAK**

- *Loco a domicilio*
- *Dracula*
- *Dos caras de la verdad*
- *Días de fortuna*
- *Misión imposible*

**KOMIKIA**



# "LEIZAUR" EUSKALTEGIA


H.A.B.E. -ri homologatua

EUSKALDUNTZEN  
ALFABETATZEN  
E.G.A.

EGUNERO 2, 3 edo 5 ORDU  
(goiz edo arratsalde)

LANGABETUENTZAKO  
TALDE BEREZIAK

T o k i a :  
Extremadura kalea, 4bi - 2bi  
("Sociedad R. Andoaindarra" aurrean)



Tel.: 59 32 76

MATRIKULA EPEA: I r a i l a  
Arratsaldeko 5etatik 8etara

**fotocolor**  
ERREBELATUA ORDU EAN

Zure argazki  
denda



**Kodak**  
**EXPRESS**  
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

JOSE IGNACIO UNANUE  
JUAN BTA. ERRO 1 - 59 43 32  
20.140 ANDOAIN



SAGARDOTEGIA  
JATETXEA

# URRITZA

7. Area - Poligono Industriala (Behe solairua)  
20.150 ADUNA ☎ 69 33 96

- EGUNEKO MENUA
- Bereitasuna:  
ARRAIN eta HARAGI erreak



# EUROPEAN SCHOOL HIZKUNTZ AKADEMIA

- ✓ JATORRIZKO IRAKASLEGO TITULUDUNA
- ✓ INTERPRETATITZA ETA ITZULPEN ZERBITZUAK
- ✓ IKASTAROAK URTE OSOAN
  - "STEP UP" PROGRAMA,
  - ESKOLARAKO LAGUNTZA
  - ENPRESETARAKO IKASTARO BEREZIAK
- ✓ AZTERKETA OFIZIALETARAKO PRESTAKUNTZA
- ✓ CAMBRIDGE, ALLIANCE FRANÇAISE  
TITULUTARAKO AZTERKETAK
- ✓ TALDE MUGATUAK

**KURTSO ONETARAKO  
MATRIKULAZIOA ZABALIK**

Goizez - 10,00 - 13,00  
Arratsaldez - 17,00 - 21,00

**INGELESA - FRANTZESA**

Kale Berria, 10 Tel. - Fax. 69 39 76  
**BILLABONA**

# BE

# BILLABONAKO EUSKALTEGIA

ERREBOTE PLAZA ☎ 69 25 36

- ✓ Euskalduntze maila guztiak
- ✓ Alfabetatze ikastaroak
- ✓ EGA
- ✓ Hizkuntz eskakizunak
- ✓ Mintza praktika
- ✓ Eskolumeak dituzten gurasoei  
zuzendutako ikastaroak
- ✓ Euskaraz irakurri eta  
idazteko ikastaroak

## Ekintzak:

Asteburueta  
irtenaldiak,  
diapositibak, filmeak,  
musika emanaldiak,  
hitzaldiak, tailerrak.

**Matrikula epea: Irailaren 16tik 27ra. Ordua: 6etatik - 8etara**